

# Azterketak



Hego Euskal Herriko  
fiskalitateari buruzko  
txostena 2003:  
bidegabekeria  
handitzen da

ELAko Azterketa Bulegoa

# Non zer

<b>SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>I. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETAHEGO EUSKAL HERRIAN</b> .....	<b>4</b>
1. Hitzartutako zergen bilketa EAEn 2003an eta 2002ko bilketarekiko bilakaera .....	4
2. Hitzartutako zergen bilketa Nafarroan 2003an eta 2002ko bilketarekiko bilakaera .....	7
<b>II. HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA HEGO EUSKAL HERRIAN</b> .....	<b>11</b>
0. Sarrera .....	11
1. Hitzartutako zergen presio fiskala EAEn 2003an eta 2002koaren aldean izandako bilakaera .....	12
2. Hitzartutako zergen presio fiskala Nafarroan 2003an eta 2002koaren aldean izandako bilakaera .....	16
3. Presio fiskala Europan eta Euskal Herrian .....	19
<b>III. PFEZAREN EGOERA HEGO EUSKAL HERRIAN</b> .....	<b>21</b>
1. Aitortutako errentaren jatorria .....	21
2. Kolektibo bakoitzak batez beste aitortutako errenta .....	22
<b>IV. IRUZUR FISKALA</b> .....	<b>25</b>
1. Egindako zerga ikuskapenak .....	25
2. Zerga ikuskapenen ondoriozko bilketa .....	26

Azaroan egingo dugun XI. Kongresuari begira egiten ari garen planteamenduetako bat gizarte-ereduan sakontzeko premia da. Instituzioek hartzen dituzten erabaki guztiek zuzeneko eragina dute langileriaren eta gizarte osoaren bizi-baldintzetan, eta gizarte-ereduaren funtsezko atala dira. Fiskalitatea esandako horren adibide dugu: zergen ondorioz zenbat eta non biltzen den, eta zenbat eta nola gastatzen den instituzioen erabakien arabera da. Beraz, hautatzen den fiskalitate-ereduak erabakitzen du, neurri handian, errentaren banaketa bidezkoagoa ala bidegabeagoa izatea.

Tamalez, gai horiek oinarrizko ardaztat izan beharko lituzkeen eztabaida politikoa edukirik gabeko planteamendu hutsetara desbideratu da askotan. Gure eginbearra egoera hori aldarazteko ekarpena egitea da.

Urtero fiskalitateari buruz argitaratzen dugun azterlan hau eginbear hori gauzatzeko urrats bat besterik ez da. Agiri honetan, 2003ko egoera fiskala aztertzen da, Hego Euskal Herriko hitzartutako zergen bilketa, presio fiskala, PFEZaren egoera eta zerga-iruzurra sakon landuz. Bertan aurkezten diren datuak Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak, Dirubideen Euskal Kontseiluak, Nafarroako Ekonomia eta Ogasun Sailak eta lau lurralde historikotako Foru Ogasunek argitara emandakoak dira, Eustaten eta Nafarroako Estatistika Erakundearen web guneetako informazioarekin osaturik. Beraz, datu publikoak eta ofizialak dira.

Bestelako zerga-politikak eta bestelako gizarte-politikak egin daitezken, ezinbestekoa da aldaketa hori gertatzeko besteko gizarte-presioa lortzea. Hasteko, geure informazioa barneratu, geure tesiak indartu, eta gizarte kontzientziazteko lana egin behar dugu. Arlo horretan, asko daukagu egiteko, horrelako gaiak tratatzen ditugun edozein bileratan agerian geratzen denez.

**Mikel Noval - Julene Gabiola**

## I. HITZARTUTAKO ZERGEN BILKETA HEGO EUSKAL HERRIAN

Honako atal honetan, hitzartutako zergen 2003ko bilketa eta 2002ko bilketaren aldean izandako bilakaera aztertuko ditugu, EAERI eta Nafarroari dagokienez. Hitzartutako zergak Kontzertu Ekonomikoan adostutakoak dira, EAERen kasuan, eta Nafarroan, Hitzarmen Ekonomikoan hitzartutakoak. Zerga horiek **Hego Euskal Herriko lurralde historikoetako foru ogasunek biltzen dituzte.**

### 1. Hitzartutako zergen bilketa EAEn 2003an eta 2002ko bilketarekiko bilakaera

EAEko foru-ogasunek **9.205,3 milioi euro** bildu dituzte 2003an; horren arabera, 2002an (8.673,8 milioi euro bildu ziren) **baino %6,1** gehiago bildu da.

Ikus dezagun zein **zergak** eragin duten **bilketa handiena**:

- 2003an, sarrera gehien eragin dituena zeharkako zerga bat izan da, *BEZa*, 3.252,4 milioi euroko bilketa eragin duena, hau da, bilketa osoaren %35,3. Zerga hori da 2003an igoerarik handiena izan duena (%10,3); hortaz, bilketa osoan duen pisua 1,3 puntu hazi da, 2002an (%34) zuenaren aldean.
- Hurrengo zergarik garrantzitsuen *PFEZa* izan da; zerga horren zioz, 3.018,1 milioi euro bildu dira, bilketa osoaren %32,8, alegia. Zerga horren bilketak batez bestekoaren azpitiko igoera leuna (%5,1) izan du, eta, ondorioz, bilketa osoan duen pisua ere jaitsi egin da pixka bat.
- Bilketako hirugarren sail garrantzitsuen *Zerga Bereziarena* izan da. 1.121,7 milioi euro bildu dira zerga horien eraginez, hots, 2003an bildutako guztiaren %12,2. Horiek ere batez bestekoaren azpitik hazi direnez (%3,4), bilketa osoan duten pisua urritu egin da pixka bat.
- *Sozietateen gaineko Zergaren* zioz, 1.039,2 milioi euro bildu dira 2003an, bildutako guztiaren %11,3, alegia. Hauxe da, alde handiz, 2003an gutxien hazi den zerga (%1); ondorioz, bera da ere, proportzioan, osoko bilketan pisu gehien galdu duena.

Beraz, **BEZa da batez bestekoaren gainetik hazi den zerga bakarra**, eta, ondorioz, 2002ko urtealdikoarekin alderatuta, zerga horrek bilketa osoan duen pisua da handitu den bakarra.

Hitzartutako zerga garrantzitsuenen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. EAE, 2003-2002. Milioi eurotan

	2003	egit.(%)	2002	egit.(%)	% ald.
BEZa	3.252,4	35,3	2.948,8	34,0	10,3
PFEZa guztira	3.018,1	32,8	2.872,7	33,1	5,1
Zerga bereziak	1.121,7	12,2	1.085,1	12,5	3,4
Sozietate gaineko zerga	1.039,2	11,3	1.037,9	12	0,1
Beste	773,9	8,4	729,2	8,4	6,1
Guztira	9.205,3	100	8.673,8	100	6,1

Iturria: Eusko Jaurlaritzza

Ondoren, **zuzeneko eta zeharkako zergen** bilketa aztertuko dugu, bai eta 2002koarekiko bilakaera ere. Zerga batzuk, Tasen eta Bestelako Sarrerren multzokoak direnez, ez dira ez zuzeneko zergatzat ez zeharkakotzat hartzen; horrelakoak «**gainerakoak**» deitutako multzoan batu dira.

- *Zeharkako zergen* ondoriozko bilketa 4.878,5 milioi eurokoa izan da: foru-ogasunen sarrerren %53, hain zuzen ere. Zerga horien bilketak 2002koaren aldean izan duen igoera (%9koa) batez bestekoarena baino nabarmenki handiagoa izan da; hortaz, zerga horiek bilketa osoan duten pisua 1,4 puntu hazi da 2003an.
- *Zuzeneko zergen* batura 4.218,3 milioi eurokoa izan da 2003an, hots, bilketa osoaren %45,8. 2002koaren aldean %3 besterik hazi ez denez (bilketa osoa hazi denaren erdia baino gutxiago), horien pisua 1,4 puntu urritu da.

Ondorioz, **zeharkako zergen pisua** (hots, mundu guztiak ordaindu beharreko zergena, pertsona bakoitzaren sarrerak aintzat hartu gabe) **handiagotu, eta zuzeneko zergena** (hau da pertsona bakoitzaren sarrerak kontuan hartzen dituztenena) **urritu egin da**.

Hitzartutako zergen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. EAE, 2003-2002. Milioi eurotan.

	2003	egit.(%)	2002	egit.(%)	% ald.
Zeharkako zergak	4.878,5	53,0	4.476,8	51,6	9
Zuzeneko zergak	4.218,3	45,8	4.094,2	47,2	3
Beste	108,5	1,2	102,8	1,2	5,6
Zergak guztira	9.205,3	100	8.673,8	100	6,1

Iturria: Eusko Jaurlaritzza

Orain, **zuzeneko zergek** 2003an agertzen duten **egitura** aztertuko dugu, zergok lan errenten gainekoak (lanaren PFEZa) ala enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten gainekoak (horrelako errentak jasotzen dituzten pertsonen PFEZa gehi Sozietateen gaineko Zerga) diren bereizita.

Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta zuzeneko beste zerga batzuk ez ditugu goian aipatutako bi taldeetako ezein-tan sartu, «gainerakoak» deitutakoan baizik. «Gainerako» zergen multzoak eragindako bilketaren zenbatekoa negatiboa da, PFEZako kuota diferentzial garbiaren eraginez (errenta-aitorpenak egiten direnean, ogasunek itzultzen duten diru-kopurua handiagoa da bildutakoa baino. Ogasunek PFEZaren kanpainan itzultzen eta biltzen dituzten zenbatekoen arteko diferentziari kuota diferentzial garbia esaten zaio, eta negatiboa suertatzen ari da beti).

Lehen esan dugunez, **zuzeneko zergen batura** 4.218,3 milioi eurokoa izan da 2003an, eta %3ko igoera agertzen du 2002koaren aldean:

- 2003an, zuzeneko zerga garrantzitsuena **lanaren PFEZa** izan da. Zerga horrek 3.070,5 milioi euroko sarrerak eragin ditu, hots, zuzeneko zergen ondoriozko bilketa osoaren %72,8. Aurreko urtearekin konparatuta, %6,2ko igoera izan du (hots, bilketa osoak izan duen gehikuntza baino hamarren bat gehiagokoa); beraz, bilketa horren igoera zuzeneko zergen bilketa osoak izan duen gehikuntzaren bikoitza baino handiagoa izan da. Horren eraginez, lanaren PFEZak zuzeneko zergen bilketa osoan duen pisua 2,2 puntu handitu da.
- **Sozietateen gaineko Zerga** atal honen hasieran aztertuko dugun arren, honakoan aipatu behar da zerga horrek 2003an zuzeneko zergen ondoriozko bilketaren %24,6 eragin duela, hots, 2002an baino 0,7 puntu gutxiago.
- **Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZak** 316,8 milioi euroko bilketa eragin du, zuzeneko zerga guztien ondoriozko bilketaren %7,5, alegia. Zerga horrek eragindako bilketa 2002koa baino %5,2 txikiagoa izan da, eta, ondorioz, zuzeneko zergen ondoriozko bilketan duen pisua ere 0,7 txikiagoa izan da.
- **Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errentek** (Sozietateen gaineko Zergaren eta enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren baturak) 1.356 milioi euro ekarri dituzte EAEko ogasunen diru-kutxetara, hau da, zuzen-

neko zerga guztiak ekarritakoaren %32,1. Zerga horien ondoriozko bilketa 2002koa baino %1,2 txikiagoa izan da; ondorioz, zuzeneko zergen bilketan duen pisua 1,4 puntu jaitsi da, 2002koaren aldean.

Hortaz, esan dezakegu **zuzeneko zergen bilketaren barruan, lanaren PFEZaren ekarpena nabarmenki handitu dela, enpresaburu, profesionalen eta kapitalaren errentena urritu egin delarik.**

**Hitzartutako zuzeneko zergen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. EAE, 2003-2002. Milioi eurotan**

	2003	egit.(%)	2002	egit.(%)	% ald.
<b>Lanaren PFEZa</b>	3.070,5	72,8	2.890,2	70,6	6,2
- Sozietate gaineko zerga	1.039,2	24,6	1.037,9	25,3	0,1
- Enpr.,prof.,k. PFEZa	316,8	7,5	334,3	8,2	-5,2
<b>Enpr.,prof.,k(*) errentak</b>	1.356	32,1	1.372,3	33,5	-1,2
Beste	- 208,2	- 4,9	- 168,2	- 4,1	23,7
<b>Zuzeneko zergak guztira</b>	<b>4.218,3</b>	<b>100</b>	<b>4.094,2</b>	<b>100</b>	<b>3</b>

(\*) Sozietateen gaineko Zerga + enpresaburu, profesionalen eta kapitalaren errenten PFEZa

*Iturria: Eusko Jaurlaritz*

Atal honetan zehar atera ditugun ondorioak laburbildurik, **EAE, hitzartutako zergen ondoriozko bilketaren bilakaera negatiboa eta atzeragarria** dela esan dezakegu; izan ere:

- BEZ zeharkako zergaren pisua da bilketa osoan handitu den bakarra; gainerako zerga garrantzitsuenen pisua, berriz, urritu egin da.
- Zeharkako zergek osoko bilketan duten pisua areagotu egin da, eta zuzeneko zergena, aldiz, murriztu; horrek zerga-bilketaren atzeragarritasuna gero eta handiagoa dela erakusten du.
- Lanaren PFEZari zuzeneko zergen multzoan (eta bilketa osoan) dagokion ekarpena handiagotu egin da, enpresaburu, profesionalen eta kapitalaren errentena, aitzitik, urritu egin delarik.

## **2. Hitzartutako zergen bilketa Nafarroan 2003an eta 2002ko bilketarekiko bilakaera**

Nafarroako ogasunak aurkeztutako informazioaren arabera, 2.464,4 milioi euro bildu ditu Foru Erkidegoak 2003an. Hala ere,

kopuru horren barruan, 2002ko hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zergari (urte horretan bertan sortutakoa) dagozkion ia 13 milioi euro ere daude sartuta. Ondorioz, 2003ko bilketaren zati bat, berez, 2002ko bilketari dagokio. Urte bakoitzean zehatz-mehatz zer gertatu den aztertu ahal izateko, hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zerga benetan dagokion urtearen barruan sartu dugu. Horregatik, 2002ko eta 2003ko bilketaren osoko zenbatekoak ez datoz bat foru-ogasunak aurkeztutakoekin.

Irizpide horren arabera, Nafarroako ogasunak **2003an bildutakoa 2.451,4 milioi euro** lirateke, hau da, 2002an bildutakoa baino %1,5 gehiago bakarrik.

2003an, hitzartutako **zerga garrantzitsuenak** honako hauek izan dira Nafarroan:

- *BEZa*, 815,8 milioi euroko bilketa eragin duena. Zeharkako zerga horrek %3,2ko murriztapena izan du 2002koarekin alderatuta; izan ere, zerga garrantzitsuenetatik jaitsierarik handiena izan duena da. Ondorioz, bilketa osoan duen pisua ere %33,3raino jaitsi da.

2003a ez da izan BEZak Nafarroan hain jaitsiera nabarmena jasan duen lehenengo urtea, nahiz eta BEZaren tasa aldatu ez eta hazkunde ekonomikoak handia izaten segitu (2003an, %3ko hazkundera gertatu zen ekonomian). Berez, logikaren aurkako horrelako urritzeak beste urte batzuetan ere gertatu dira (%9,32koa 2001ean, edo %4,56koa 1999an). BEZaren bilketaren bilakaera oso bitxia izan da azken urteetan, jaitsiera horiekin konbinaturik hazkundera jazo direlako (batzuk oso handiak, 2002ko %27,7koa kasu).

- Hurrengo zerga garrantzitsuenak *PFEZa* izan da 2003an, sarrera guztien %31,1 eragin du eta. 2002tik %4,8ko igoera izanda, 762,3 milioi euro bildu dira zerga horren eraginez.
- *Zerga Berezien* ondorioz, 355,3 milioi euro bildu dira 2003an, sarrera guztien %14,5, alegia. Zerga horiexek izan dute gehikuntzarik handiena 2002koen aldean: %8,2koa, hain zuzen ere.
- *Sozietateen gaineko Zergak* 299,4 milioi euroko bilketa eragin du, 2002koa baino %2,4 txikiagoa, izan ere. Beraz, zerga horrek bilketa osoan duen pisua %12,2ra urritu da.

Beraz, **bilketa osoa oso gutxi handitu** dela esan daiteke. BEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren ondoriozko bilketak, bestalde, murriztu egin dira.



Hitzartutako zergen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2003-2002. Milioi eurotan

	2003	egit.(%)	2002	egit.(%)	% ald.
BEZa	815,8	33,3	842,5	34,9	-3,2
PFEZa guztira	762,3	31,1	727,4	30,1	4,8
Zega bereziak	355,3	14,5	328,3	13,6	8,2
Sozietate gaineko zerga	299,4	12,2	306,6	12,7	-2,4
Beste	218,6	8,9	210,5	8,7	3,9
Guztira	2.451,4	100	2.415,2	100	1,5

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Ondoren, **zuzeneko eta zeharkako zergen** ondoriozko 2003ko bilketa aztertuko dugu, bai eta 2002koarekin alderatuta izan duen eboluzioa ere. Horretarako, alde batera utziko dugu joko-tasek eta bestelakoek osatzen duten %1a, hori ez baitagokie ez zuzeneko zer-gei ez zeharkakoei.

- 2003an, *zeharkako zergen* batura 1.299,8 milioi eurokoa izan da, bilketa osoaren %53, alegia. Zerga horiek %0,8ko gehikuntza izan dute 2002tik 2003ra; hortaz, batez bestekoaren azpitik hazi dira, eta bilketa osoan duten pisua jaitsi egin da.
- *Zuzeneko zergen* batura handitu egin da 2003an, 1.127,5 milioi eurora, hain zuzen ere; horrek, bilketa osoaren %46 adierazten du. Zerga horiek batez bestekoaren gaintik hazi direnez (%2,3), osoko bilketan duten pisua areagotu egin da.

Hitzaertutako zergen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2003-2002. Milioi eurotan

	2003	egit.(%)	2002	egit.(%)	% ald.
Zeharkako zergak	1.299,8	53	1.288,9	53,4	0,8
Zuzeneko zergak	1.127,5	46	1.102,6	45,6	2,3
Beste	24,1	1	23,6	1	1,8
Zergak guztira	2.451,4	100	2.415,2	100	1,5

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Orain, sakon aztertuko dugu **zuzeneko bilketa**, horretan lanaren errentei dagokien zatia eta enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errentei dagokiena bereizi ahal izateko.

Goian esan bezala, Nafarroan, **zuzeneko bilketa** 1.127,5 milioi eurokoa izan da 2003an, hots, aurreko urtealdian baino %2,3 handiagoa:

- *Lanaren PFEZak* 713,2 milioi euroko bilketa eragin du, zuzeneko bilketa osoaren %63,3, alegia. Zerga horren eraginez bildutakoa %7,4 igo da 2002koarekin konparatuta, eta, beraz, bilketa osoan duen pisua 3,1 puntu handiagotu da.
- *Sozietateen gaineko Zergari* buruz esandakoa osatzeko, aipatu behar dugu Nafarroakoak 2003an zuzeneko zerga-bilketaren %26,5 eragin duela, hau da, 2002an baino 1,3 puntu gutxiago.
- *Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZak* 97 milioi euroko sarrerak ekarri dizkio foru-ogasunari, 2002an baino %3,2 gutxiago, alegia. Ondorioz, %8,6ko pisua dagokio zuzeneko bilketa osoan (2002an baino 0,5 puntu gutxiago).
- *Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten* ondoriozko bilketa (Sozietateen gaineko Zergaren eta enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren batura) 396,4 milioi eurokoa izan da, hots, 2002koa baino %2,6 txikiagoa. Ondorioz, duten pisua 1,7 puntu jaitsi da, berauen %35,2an kokatuz.

**Lanaren PFEZak** zuzeneko bilketari egin dion **ekarpena** modu nabarian **areagotu da**, eta **enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errentena** (aipatutako bi osagaiak barne hartuta) **urritu** egin da.

Hitzartutako zuzeneko zergen bilketa, zerga motaren arabera; egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2003-2002. Milioi eurotan.

	2003	estr.(%)	2002	estr.(%)	% ald.
<b>Lanaren PFEZa</b>	713,2	63,3	664,2	60,2	7,4
- Sozietate gaineko zerga	299,4	26,5	306,6	27,8	-2,3
- Enpr.,prof.,k. PFEZa	97,0	8,6	100,2	9,1	-3,2
<b>Enpr.,prof.,k(*) errentak</b>	396,4	35,2	406,8	36,9	-2,6
Beste	17,9	1,6	31,6	2,9	-43,3
<b>Zuzeneko zergak guztira</b>	1.127,5	100	1.102,6	100	2,3

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

(\*) Sozietate gaineko Zerga+Enpr.,prof.,k. PFEZa

**Nafarroan, 2003ko urtealdian**, hitzartutako zergen **bilketan** geratutakoari buruzko **ondorioztapena** eta 2002koarekiko izan duen bilakaera, beraz, **negatiboak** dira; izan ere:

- Bilketa osoa oso gutxi handitu da.
- Zeharkako bilketa murriztu egin da.
- Zuzeneko bilketa lanaren errenten ekarpena handitzearen ondorioz areagotu da, Sozietateen gaineko Zergaren ekarpena, enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZarena eta, hortaz, enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errentena urritu egin dira eta.

## II. HITZARTUTAKO ZERGEN PRESIO FISKALA HEGO EUSKAL HERRIAN

Hitzartutako zergen presio fiskalak zerga horiei Barne Produktu Gordinean (BPG) dagokien ehunekoa neurtzen du; hau da, urtean sortutako aberastasunetik zergak ordaintzera bideratzen den zatia-  
ren berri ematen digu.

### 0. Sarrera

Aurreko urteetan, BPGan oinarritu izan gara EAeko presio fiskala neurtzeko. Nafarroakoa zehazteko, berriz, Balio Erantsi Gordina hartu dugu erreferentziatzat, Foru Erkidegoan, orain arte, BPGaren zifra ez zelako argitaratzen. Horrek nolabaiteko homogeneotasun falta eragiten zuen gure azterketetan. Orain, Nafarroako Estatistika Institutua ere BPGaren zifra argitaratzen hasi denez, hobekuntza ematen da gure azterlanean, eta Nafarroan ere aurrera-pausoa da berau.

Beste batzuetan, erkidego bakoitzean Zerga Berezien bilketa egi-  
ten hasi zen urtetik aurrera aztertu izan dugu presio fiskalaren bila-  
kaera (1997tik aurrera EAEn, eta 1998tik Nafarroan). Orain Nafarroako BPGa ere badakigunez, aurrerantzean, urtealdi beretik (1998tik) hasiko gara bi erkidegoetako bilakaera aztertzen, presio fiskalaren gaineko gure azterketa homogeneizatzeko.

Eustatek, orain arte, uztailearen lehenengo hamabostaldian argi-  
taratu izan du aurreko urtealdiko BPGaren aurrerapena, presio fis-  
kala kalkulatzeko erabiltzen duguna. Aurten, ordea, irailera arte ez  
dute argitaratuko 2003ko BPGaren aurrerapen hori. Hori dela eta,  
2003ko BPGaren zenbatespena egin behar izan dugu, eta, horretar-  
rako, 2003rako BPGaren eta KPIaren hazkunde ekonomikoaren

---

zifra erabili behar izan dugu, bai EAEn bai bertako lurraldeetako presio fiskala zehazteko.

**1. Hitzartutako zergen presio fiskala EAEn 2003an eta 2002koaren aldean izandako bilakaera**

**2003an**, hitzartutako zergen ondoriozko **presio fiskala BPGaren %19,5ekoa izan da** EAEn; horrek esan nahi du ekonomian sortu diren ehun euro bakoitzetik 19,5 hitzartutako zergak ordaintzeko erabili direla.

Horrek **2 hamarreneko igoera** adierazten du **2002ko presioarekin konparatuta**, 2003an, hitzartutako zergen bilketa ekonomiaren hazkundearen gainetik handitzearen ondorioz.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, presio fiskalak 1998tik aurrera aldaketa leunak izan baditu ere, **1998ko maila berean mantendu da**. Zergak ordaintzeko erabiltzen den aberastasun ehuneko, beraz, 1998koa bera izan da EAEn.


**Zuzeneko eta zeharkako zergen presioarekin** zer gertatu den begiratuta, batzuek eta besteek oso bilakaera ezberdina izan dutela ikus dezakegu:

- *Zuzeneko zergek*, 2003an, BPGaren %8,9ko presioa izan dute, hau da, 1998an izan zutena (BPGaren %9,4) baino 0,5 puntu txikiagoa.
- *Zeharkako zergek*, bestalde, BPGaren %10,3ko presio fiskala jasan dute 2003an, 1998koa (BPGaren %9,8) baino 0,5 puntu handiagoa, alegia

Hortaz, **zeharkako zergek hartu dute zuzenekoek 1998-2003 aldian galdutako puntu erdiko presio fiskala, osoko presio fiskala aldaketarik gabe mantendu delarik**. Era horretan, areagotu egin da zuzeneko zergen presio fiskalaren eta zeharkakoenaren arteko aldea, zeharkakoen kaltetan; berez, 1998an, zeharkako zergen presio fiskala zuzenekoena baino 0,5 puntu handiagoa bazen ere, 1,4 puntu gorago amaitu du aipatutako aldi hori.

---

Hitzartutako zergen osoko presio fiskala, zuzeneko eta zeharkakoa. EAE, 1998-2003 (BPG %).



Iturriak: Eusko Jaurlaritza eta Eustat

Ondorengo grafikoan, **zuzeneko zergen presio fiskalak** 1998-2003 aldian izandako banaketa eta bilakaera aztertuko ditugu.


- Presio fiskalik handiena *lanaren errentek* jasaten dute PFEZan (BPGaren %6,5koa 2003an), nahiz eta presio hori 1998tik hona 2 hamarren jaitsi den.
- *Enpresaburu*en, *profesionalen* eta *kapitalaren errentek* BPGaren %2,9ko presioa besterik ez dute jasan 2003an. Horien presioa ere 2 hamarren murriztu da 1998tik hona. Atal horren bi osagai erreparatuta, honako hau ikusten da:
  - a) *Sozietateen gaineko Zergak* BPGaren %2,2ko presioa jasan du, eta beraren presio fiskala da, zuzeneko zergenetatik, aldi horretan murriztu ez den bakarra. Hala ere, zerga hori ere ez da handitu, enpresaburuen mozkinen gehi-

kuntza oparoa izan arren. Aztertzen ari garen aldian Sozietateen gaineko Zergaren tasa murriztu izana da zerga hori ez handitzearen arrazoietakoa bat.

- b) *Enpresaburuen, profesionalen eta artisten PFEZak* BPGaren %0,7ko presioa jasan du 2003an (aldiaren hasieran baino 2 hamarren gutxiago); beraz, hauxe da presiorik txikiena izan duen zuzeneko zerga.

Beraz, ikus daitekeenez, **lanaren errenten presio fiskala enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errentenaren bikoitza baino handiagoa da. Horrez gain, aztertutako aldi osoa hartuta, presio fiskala zuzeneko zerga guztietan urritu da (Sozietateen gaineko Zergan izan ezik), eta lanaren PFEZak PFEZ osoan duen pisua handiagotu egin da.**

Hitzartutako zuzeneko zergen presio fiskala. EAE, 1998-2003 (BPG %).



*Oharra: Lanaren PFEZaren eta enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren batura PFEZ osoa baino handiagoa da, azken horren barruan kuota diferentzial garbia ?kopuru negatiboa erakusten duena? baitago.*

**Zeharkako zergek** 1998tik 2003ra bitarte jasan duten **presioa** aztertuta, honako hau ikus daiteke:

- Presio fiskalik handiena izan duen zeharkako zerga *BEZa* da (%6,9); horren presioa 0,5 puntu areagotu da 5 urte horietan.
- Horren ostean, *Zerga Bereziak* datoz, BPGaren %2,4ko presioarekin. Presio hori 1 hamarren murriztu da aztertutako aldian.

**EAEn, hitzartutako zergen presio fiskalak 1998-2003 aldian izan duen bilakaera atzeragarria izan da; izan ere:**

- Hitzartutako zergen presio fiskal osoa aldaketarik gabe mantendu da.
- Zeharkako zergen presio fiskala handitu egin da.
- Zuzeneko zergen presio fiskala urritu egin da, nahiz eta lanaren PFEZari PFEZ osoan dagokion pisua handitu egin den.

**EAEko presio fiskala lurraldez lurralde** aztertzean, hauxe ikus daiteke:

- EAEko lurraldeetatik Bizkaia izan da 2003an presio fiskalik handiena jasan duena, %19,7koa, hain zuzen ere (EAEko batez bestekoa baino 2 hamarren handiagoa). Gainera, presio horrek 3 hamarreneko igoera izan du, 2002koarekin alderatuta.
- Bigarrena Gipuzkoa izan da, EAEko batez besteko presio berdinarekin (BPGaren %19,5), aurreko urtealditik 3 hamarren handitu ondoren.
- Araba izan da presio fiskal txikiena jasan duen lurraldea: BPGaren %19koa, hain zuzen, hau da, EAEko batez bestekoa baino 5 hamarren txikiagoa. Lurralde horretako presioa, gainera, 2 hamarren jaitsi da 2002koaren aldean.

EAE osoan gertatzen den bezala, *BEZa* izan da 3 lurraldeetan presio fiskalik handiena jasan duen zerga (Bizkaian izan ezik, lurralde horretan lanaren PFEZak BEZaren presio bera izan du eta).

Hitzartutako zergen presio fiskala (BPG %), zerga motaren arabera. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, 2002-2001.

	Biz 03	Biz 02	Gip 03	Gip 02	Ara 03	Ara 02
BEZa	6,7	6,2	7,1	6,7	7,1	7,2
Lanaren PFEZa	6,7	6,7	6,3	6,2	6,4	6,2
Enpr.,prof.,k(*) errentak	2,9	3,2	2,9	2,9	2,7	3,1
Zerga bereziak	2,4	2,4	2,4	2,4	2,4	2,4
Beste	1,0	0,9	0,9	1,0	0,4	0,3
<b>Guztira</b>	<b>19,7</b>	<b>19,4</b>	<b>19,5</b>	<b>19,2</b>	<b>19,0</b>	<b>19,2</b>

(\*): Sozietateen gaineko Zerga + Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZa

Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa

## 2. Hitzartutako zergen presio fiskala Nafarroan 2003an eta 2002koaren aldean izandako bilakaera

Nafarroako **presio fiskala BPGaren %19,3koa** izan da **2003an**; bestela esateko, Nafarroako ekonomian 2003an sortutako 100 euro bakoitzetik 19,3 hitzartutako zergak ordaintzera bideratu dira.

Horrek **9 hamarreneko jaitsiera** adierazten du **2002ko presioaren aldean**, eta hitzartutako zergek ekonomiarekin konparatuta izan duten hazkunde txikiagoa da jaitsiera horren arrazoia.

Hurrengo grafikoak hitzartutako zergen presio fiskalak Nafarroan 1998-2003 aldian izan duen bilakaera erakusten du. Bertan ikus daitekeenez, 1998an, presio fiskala BPGaren %20,5ekoa zen, eta, beraz, presio fiskalak **1,2 puntuko murriztapena izan du 1998koarekiko**. Horrek esan nahi du 2003an, zergak ordaintzeko, 1998ko aberastasun ehuneko bera erabili balitz, 2003an xede horretara bideratutakoak 152,5 milioi euro gehiago izango zirela. Horrek zuzeneko eragina du Foru Erkidegoaren gastuaren mailan.


**Zuzeneko eta zeharkako zergen presio fiskalaren bilakaeraren** azterketak frogatzen duenez:

- *Zuzeneko zergek* BPGaren %8,9ko presio fiskala izan dute 2003an, 1998-2003 aldian 3 hamarreneko igoera izanda.
- *Zeharkako zergen* presio fiskala BPGaren %10,2koa izan da 2003an, hau da, epealdi horren hasieran baino 1,4 puntu txikiagoa.

Aldi horren hasieran, zeharkako zergen presioa zuzeneko zerge-na baino 3 puntu handiagoa bazen ere, aldea laburtu egin da aldian zehar, 2003an 1,3 puntukoa izan arte.



Hitzartutako zergen osoko presio fiskala, zuzeneko eta zeharkakoa. Nafarroa, 1998-2003 (BPG %).



Iturriak: Nafarroako Ogasuna eta Nafarroako Estatistika Erakundea


**Zuzeneko zerga bakoitzaren presioaren** banaketa kolektiboz kolektibo aztertzean, hauxe ikus dezakegu:

- *Lanaren errentek* PFEZan jasaten duten presio fiskala BPGaren %5,6koa izan da 2003an. Presio hori 0,5 puntu handitu da 1998tik aurrera. Beraz, zuzeneko zerga horren presio fiskala izan da aztertutako aldiaren gehien hazi dena, eta horrexen eraginez handitu dira bai PFEZ osoaren presio fiskala, bai zuzeneko zergen multzo osoarena.
- *Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten* presio fiskala (BPGaren %3,1) 3 hamarren jaitsi da 1998tik 2003ra bitartean. Atal horren bi osagaien erreparatuta, honako hau ondorioztatu dezakegu:
  - a) *Sozietateen gaineko Zergak* BPGaren %2,4ko presioa izan du 2003an, epealdian 1 hamarren jaitsita.

b) *Enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren PFEZaren presio fiskala %0,8koa izan da 2003an, hau da, 1998an baino 1 hamarren txikiagoa.*

Beraz, 1998tik 2003ra, **zuzeneko zergen presio fiskala lanaren PFEZa handitzearen eraginez areagotu da, enpresaburuen, profesionalen eta kapitalaren errenten presioa urritu egin da eta.**

**Hitzartutako zuzeneko zergen presio fiskala.  
Nafarroa, 1998-2003 (BPG %).**



*Iturriak: Nafarroako Ogasuna eta Nafarroako Estatistika Erakundea*

**Zeharkako zergen presio fiskala** aztertzean ikus dezakegunez:

- *BEZaren presio fiskala BPGaren %6,4koa izan da 2003an, hots, 1998an baino 1,4 puntu gutxiagokoa.*
- *Zerga Bereziek BPGaren %2,8ko presioa jasan dute, 1998koa baino 1 hamarren txikiagoa, alegia.*

Beraz, Nafarroan, hitzartutako zergen presio fiskalaren bilakaera negatiboa izan da 1998-2003 aldian; izan ere:

- Hitzartutako zergen **osoko presio fiskalak jaitsiera nabarmena** izan du.
- Zuzeneko zergen presio fiskala **handitu egin da**, baina **lanaren errenten** ekarpena bakarrik areagotzearen ondorioz, **enpresaburuaren, profesionalen eta kapitalaren errenten presioa murriztu egin da eta.**
- **Zeharkako zergen presio fiskala urritu egin da.**

### 3. *Presio fiskala Europan eta Euskal Herrian*

**Europar Batasuneko estatu kideetako presio fiskala** aztertzean, gurea hura baino txikiagoa dela egiaztatzen dugu.

Zehazki esateko, *zergen osoko presio fiskala* BPGaren %40,4koa izan zen 25-Ebn, eta %40,5ekoa 15-EBn 2002an; urte horretan, Nafarroak BPGaren %33,1eko presio fiskala izan zuen (7,4 puntu txikiagoa), eta EAEk BPGaren %32,6koa (7,9 puntu txikiagoa). Dirutan hitz eginez, horrek esan nahi du 2002an Hego Euskal Herriko presio fiskala 15-EBkoa bestekoa izan balitz, zergen ondorioz bildutakoa baino 4.435,5 milioi euro gehiago joango zirela ogasunen diru-kutxetara. Espainiako estatuak ere izan zuen 2002an Hego Euskal Herri osokoa baino presio fiskal handiagoa, BPGaren %36,2koa, hain zuzen ere.

Presio fiskala zerga motaren arabera aztertuta ikus daitekeenez, Hego Euskal Herriko presio fiskala kasu guztietan da Europar Batasuneko baino urriagoa. Esaterako: Europar Batasunean *zeharkako zergen* presio fiskala BPGaren %14koa zelaririk, Nafarroakoa BPGaren %10,9koa zen (Europakoa baino 3,1 puntu txikiagoa), eta EAEkoa, BPGaren %10,1ekoa (15-EBkoa baino 3,9 puntu gutxiagoa). EAEk zeharkako zergetan agertzen du 15-EBarekiko alderik handiena.

*Zuzeneko zergen* presio fiskalari erreparatuta, 15-EBk BPGaren %13,6ko presioa agertzen zuen 2002an, Nafarroako BPGaren %9,8aren eta EAEko %10aren aldean (Europakoa baino 3,8 eta 3,6 puntu txikiagoak, hurrenez hurren). Zuzeneko zergen kasuan erakusten du Nafarroak 15-EBrekiko jauzirik handiena.

Euskal presio fiskala *Gizarte Segurantzarako kotizazioen* kasuan ere ageri da Europakoaren azpitik. Zehazki, 15-EBk BPGaren %12,9ko presioa jasan zuen 2002an Gizarte Segurantzarako ekarpenetan; Nafarroan, aldiz, presio hori BPGaren %12,3koa izan zen (Europakoa baino 6 hamarren txikiagoa), eta EAEn, BPGaren %12,5ekoa (15-EBn baino 4 hamarren gutxiagoa).

Hortaz, Nafarroako presio fiskal osoa 15 kideko Europar Batasuneko baina 7,4 puntu txikiagoa da, eta EAEkoa, hura baina 7,9 puntu txikiagoa. Diferentziarik handienak zuzeneko eta zeharkako zergetan ageri dira, eta alde txikiena, Gizarte Segurantzarako ekarpenetan.

**EBko presio fiskala 2002an,  
guztira eta zerga motaren arabera (BPG %)**

	Zergak guztira	Zeharkako zergak	Zuzeneko zergak	G.S. kontribuzioak
Suedia	50,6	17,4	12,6	10,6
Danimarka	48,9	17,7	21,8	2,1
Belgika	46,6	13,8	11,5	12,2
Finlandia	45,9	14,0	13,1	11,4
Austria	44,4	15,6	11,1	10,5
Frantzia	44,2	15,6	9,7	10,3
Luxemburgo	41,9	14,0	13,1	10,7
Italia	41,7	15,0	12,4	10,2
<b>15-UE</b>	<b>40,5</b>	<b>14,0</b>	<b>13,6</b>	<b>12,9</b>
<b>25-UE</b>	<b>40,4</b>	<b>14,1</b>	<b>13,3</b>	<b>13,0</b>
Alemania	40,2	12,3	8,3	11,5
Holanda	39,5	13,2	10,5	11,0
Portugal	36,3	15,3	11,3	8,3
Grezia	36,2	14,7	10,9	8,7
Espainia	36,2	12,2	10,5	11,0
Erresuma Batua	35,8	13,9	17,2	7,5
<b>Nafarroa</b>	<b>33,1</b>	<b>10,9</b>	<b>9,8</b>	<b>12,3</b>
EAE	<b>32,6</b>	<b>10,1</b>	<b>10,0</b>	<b>12,5</b>
Irlanda	28,6	12,5	17,8	6,3

*Iturriak: Eurostat, Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea,  
Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*

#### 1. Aitortutako errentaren jatorria

PFEZan aitortzen den errenta nondik datorren aztertuko dugu atal honetan. Daukagun informazio erkagarria 1999koa eta 2000koa da EAEko lurraldeen kasuan, eta 2000koa, 2001ekoa eta 2002koa Nafarroarenean.

2000. urtean, **lanaren errentak** PFEZan aitortutako errentaren %80,1 izan ziren Araban, %78,7 Bizkaian, %77,7 Gipuzkoan, eta %82,1 Nafarroan (azken lurralde horri buruz daukagun azken informazioak erakusten duenez, portzentajea %82,9koa izan zen 2002an).

2000n PFEZan aitortutakoaren %9,9 **enpresarien, profesionalen eta artisten errentetatik** etorritakoa izan zen Araban, %8,5 Bizkaian, %10,4 Gipuzkoan eta %10,6 Nafarroan (azken lurralde horretan %9,4 izan zen 2002an).

2000n, **gainerako errentetatik** etorritakoa (higigarrien kapitala, higiezinaren kapitala eta abar) aitortutako errenten %10 izan zen Araban, %12,6 Bizkaian, %11,9 Gipuzkoan eta %7,3 Nafarroan (2002ko urtealdiari buruzko informazioaren arabera, PFEZan aitortutako gainerako errenten pisua %7,7koa izan zen Nafarroan).

**Iturri horietako bakoitzak izan duen bilakaeraren** azterketaren arabera:

- 2000n *lanaren errentek* PFEZan zuten pisuak 0,7 puntuko igotza izan zuen Araban, 1999koekin konparatuta; Bizkaian igotza 0,8 puntukoa izan zen, eta Gipuzkoan, 3 hamarren jaitsi zen. Nafarroan, lanaren errenten pisua 8 hamarren handitu zen 2002an, 2000koaren aldean.
- *Enpresaburuen, profesionalen eta artisten errentek* PFEZan zuten pisua lurralde guztietan jaitsi zen 2000n: Araban, jaitsi hori 1,9 puntukoa izan zen, Bizkaian 0,8koa, eta Gipuzkoan 1,4koa. Aitortutako errenta ekonomikoek PFEZan duten pisua 1,2 puntu urritu da 2000 eta 2002 artean Nafarroan.
- *Gainerako errenten* pisua (higigarrien eta higiezinaren kapitalak, besteak beste) lurralde guztietan areagotu da.

Ondorioz, orokorrean, **PFEZan aitortutako gehiena lanaren errentetatik** dator, eta errenta horiek zerga horretan duten pisua, gainera, **handiagoa da urtez urte**. Besteak beste, higigarrien eta higiezinaren kapitalak barne hartzen dituen gainerako errenta-itu-

rrien multzoak ere **gero eta pisu handiagoa du** PFEZan aitortutakoan. Kontrakoa gertatzen da **enpresarien, profesionalen eta kapitalaren errentek** aitortzen dutenarekin, horien pisua **gero eta murriztagoa da eta**.

Errenta iturrien pisu erlatiboa PFEZan (%).  
Hego Euskal Herria, 1999-2002

		Lana	Enpr., prof., art.	Beste
Araba	1999	79,4	11,8	8,8
	2000	80,1	9,9	9,9
Bizkaia	1999	77,9	9,3	12,7
	2000	78,7	8,5	12,8
Gipuzkoa	1999	78	11,8	10,2
	2000	77,7	10,4	11,9
Nafarroa	2000	82,1	10,6	7,2
	2001	82,8	9,7	7,4
	2002	82,9	9,4	7,7

*Iturriak: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa eta Nafarroako Ogasuna*

## 2. Kolektibo bakoitzak batez beste aitortutako errenta

Honako atal honetan, kolektibo bakoitzak PFEZan aitortutako batez besteko errentei erreparatuko diegu. EAEkoak eta Nafarroakoak bereiz aztertuko ditugu, lehenengoan enpresarien, profesionalen eta artisten errentak batera sailkatuta daudelako, Nafarroan, ordea, enpresarien errentak profesionalenetatik aparte ageri direlarik. Atalaren amaieran, Hego Euskal Herrian batez beste aitortutako errentak ikusiko ditugu, Foru Ogasunen datuetan oinarriturik.

2000ko urtealdian, **Araban** aitortutako batez besteko lan-errenta 15.929,2 eurokoa izan zen, enpresarien, profesionalen eta artisten kolektiboak batez beste aitortu zuena (11.956,1 euro) baino 3.973,1 euro gehiagokoa, alegia.

**Bizkaian**, lanaren errentak jasotzen dituztenek, batez beste, 16.484,9 euroko errenta aitortu zuten 2000n, hau da, enpresarien, profesionalen eta artisten kolektiboak aitortutakoa (10.375,2 euro) baino 6.109,6 euro gehiago.

**Gipuzkoan**, lanaren errentak jasotzen dituzten pertsonen kolektiboak 16.634,5 euroko batez besteko errenta aitortu zuten 2000n,

errenta ekonomikoak eskuratzen dituztenek (11.325,9 euro) baino 5.308,6 euro gehiago, alegia.

Hortaz, **errenta mota bakoitzak aurreko urtealdiaren aldean izan duen bilakaera** aztertzean, hauxe ikus daiteke:

- *Arabán*, lanaren errentak jasotzen dituzten pertsonen batez beste aitortutako errenta 1999an aitortutakoa baino 1.133 euro gehiagokoa izan zen 2000n, errenta ekonomikoak jasotzen dituen kolektiboak aitortutakoa 793,7 euro gutxiagokoa izan zelarik. Era horretan, aitortutako errenta moten arteko aldea 1.926,8 euro gehiagokoa izan zen 1999tik 2000ra.
- Lanaren errenten kolektiboak batez beste aitortutakoa 1.118 euro handitu zen *Bizkaian*, 1999koarekin erkatuta; enpresarien, profesionalen eta artisten errentek, aldiz, 39,1 euro gutxiago aitortu zituzten, batez beste. Hortaz, aitortutako bi errenta mota horien arteko jautzia Bizkaian ere handitu zen, 1.157,1 eurotan, hain zuzen ere.
- *Gipuzkoan*, soldatuen kolektiboak aitortutako batez besteko errenta 1.013,5 eurotan hazi zen, 1999koaren aldean, errenta ekonomikoek aitortutakoa, berriz, 143,3 eurotan murriztu zelarik. Horrela, lurralde horretan ere areagotu zen, 1.156,8 eurotan, aitortutako bi errenta mota horien arteko aldea.

#### Kolektibo bakoitzak PFEZan batez beste aitortutako errenta. EAE, 1999-2000 (euro)

		Lana	Enpr. Prof. Art.	Diferentzia
Araba	1999	14.796,2	12.749,8	2.046,3
	2000	15.929,2	11.956,1	3.973,1
	1999-2000	1.133,0	- 793,7	1.926,8
Bizkaia	1999	15.366,8	10.414,3	4.952,6
	2000	16.484,9	10.375,2	6.109,6
	1999-2000	1.118,0	- 39,1	1.157,1
Gipuzkoa	1999	15.621,0	11.469,2	4.151,8
	2000	16.634,5	11.325,9	5.308,6
	1999-2000	1.013,5	- 143,3	1.156,8

*Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa*

Nafarroari buruz daukagun azken informazioak erakusten duenez, lanaren errentak jasotzen dituztenek 21.679,9 euroko batez besteko errenta aitortu zuten 2002an, errenta profesionalak eskuratzen

dituztenek (11.893 euro) baino 9.786 euro gehiago eta enpresa-errentak irabazten dituztenek (9.268,2 euro) baino 12.411,6 euro gehiago, alegia.

**Nafarroan** aitortutako errenta mota bakoitzak izan duen **bilakaera** aztertzen badugu, 2000 eta 2002 artean lanaren errentak jasotzen dituztenek batez beste aitortutako errenta 1.404,28 eurotan hazi dela ikus dezakegu; errenta profesionalak eskuratzen dituztenek aitortutakoa, berriz, 426,74 eurotan handitu da, eta enpresa-errentak dituztenek aitortu dutena 401,35 eurotan.

**Kolektibo bakoitzak PFEZan batez beste aitortutako errenta. Nafarroa 2000-2002 (euro)**

	Lana	Profesionala	Enpresariala
2000	20.275,6	11.467,1	8.866,9
2001	21.089,4	11.757,4	9.441,7
<b>2002</b>	<b>21.679,9</b>	<b>11.893,8</b>	<b>9.268,2</b>
2000-2002	1.404,28	426,74	401,35

*Iturria: Nafarroako Ogasuna*

Hego Euskal Herrian 2000n kolektibo bakoitzak PFEZan batez beste aitortutako errenta aztertzean ikusten denez, lanaren errentak eskuratu zituztenek 16.993,7 euroko batez besteko sarrerak aitortu zituzten, errenta ekonomikoak jaso zituztenek aitortutako 10.306,7 euroen aldean. Horrek adierazten du lanaren errentak jaso zituzten pertsonen 2000n enpresarien, profesionalen edo artisten errentak eskuratu zituztenek baino 6.687 euro gehiago aitortu zituztela.

**Ondorioz**, hauxe esan daiteke Hego Euskal Herrian batez beste aitortutako errentari buruz:

- Bai lurralde guztiak hartuta, bai lurraldez lurralde, *batez beste aitortzen den lan-errenta askoz handiagoa da enpresarien, profesionalen eta artisten errentak jasotzen dituztenek aitortzen dituztenak baino*. Hori ulertarazteko azalpen bakarra hauxe da: soldatako pertsonen benetako sarrerak aitortzen dituzte, baina soldatakoak ez direnek, ordea, ez, azken horien sarrerak nominari atxikirik ez daudenez, benetan eskuratzen dituztenez bestelako zenbatekoak aitortu ditzaketelako. Datu honek agerian uzten du *gure zerga sistemaren bidegabekeria*, iruzurra egiteko aukera ematen bait die errenta ekonomikoak eskuratzen dituztenei, eta sarrera gutxien eskuratzen dituztenek ordaintzen baitute zerga gehien, eta alderantziz.



- Batez beste aitortutako errenta moten arteko diferentzia hori handitu egiten da urtez urte; beraz, iruzurra jazarri beharrean, onartu egiten da egoera gero eta okerragoa izatea eta gure zerga-sistemaren *bidegabekeria urtez urte handiagoa izatea*.

#### Kolektibo bakoitzak PFEZan batez beste aitortutako errenta Hego Euskal Herria, 2000 (euro)

Lana	Profesionala	Diferentzia
16.993,7	10.306,7	6.687

*Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa eta Nafarroako Ogasuna*

## IV. IRUZUR FISKALA

### 1. Egindako zerga ikuskapenak

**Zerga-ikuskapenei buruzko informazioa urri-urria da** Hego Euskal Herrian, baina, hainbat bide erabiliz, zerbait jakin ahal izan dugu horren gainean. Gaitzesgarria da Arabako Ogasunaren jarraera, zerga-bilketari buruzko urteko txostena argitaratu ere ez baitu egiten. Ogasun horri behin eta berriz egin dizkiogun eskaerei (zehazki zergen ikuskaritzaren ingurukoei) entzungor eginda, beraren erantzuna isiltasuna izan da beti.

**Gipuzkoan**, 2002an, 390 zergaduni bakarrik egin zitzairen ikuskapena. Kopuru horrek adierazten duenez, ikuskapena egiten zaien zergadunen ehunekoa guztiz irrigarria da. Horrez gain, beheko taulak islatzen duenaren arabera, egindako ikuskapenen kopurua 1996tik aurrera aldakorra izan den arren, beheranzko joera argia igartzen da. Izan ere, 2002an 1996an (653) baino 263 ikuskapen gu-txiago egin ziren.

**Bizkaian**, 2002an, 752 zergaduni hauteman zitzairen iruzurra; gure zenbatespenen arabera, kopuru hori bat dator ikuskatutako zergadunen kopuruarekin. 2002an 1996an baino 292 ikuskapen gehiago zirela adierazten du zifra horrek; hala ere, 2002an, murriztapena sumatzen da aurreko urtealdiaren aldean.

**Nafarroan**, 2004an zehar, ikuskapena 350 zergaduni egiteko asmoa dago, hots, 2000n baino 250 gutxiagori; hortaz, Nafarroan ere ikusten da ikuskatutako zergadunak murrizteko joera nabaria.

**Ikuskatutako zergadunen kopurua.  
Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa, 1996-2004**

	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Gipuzkoa	653	663	507	576	479	528	390		
Bizkaia	460	511	636	858	858	873	752		
Nafarroa					600	425	425	350	350

*Iturriak: Gipuzkoako eta Bizkaiko Ogasunak eta Nafarroako Gobernuak*

Nafarroari dagokionez, *ikuskaritzan aritzen diren pertsonen kopurua* ere badakigu. Datu horrek erakusten duenaren arabera, 2004an 33 pertsonak ziharduten Foru Erkidego osoan zergen ikuskaritzan. Kopuru hori aurreko urtealdikoa baino handixeagoa bada ere, Nafarroan ere ikusten da beheranzko joera, ikuskaritzarako erabiltzen diren baliabide pertsonaletan.

**Ikuskaritzarako erabilitako baliabide pertsonalen kopuruaren bilakaera Nafarroan, 2000-2004**

	2000	2001	2002	2003	2004
	38	35	35	31	33

*Iturria: Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Proiektuak*

Beraz, **Hego Euskal Herrian zerga-ikuskaritzan egiten den ahalegina irrigarria dela** esan daiteke; gainera, horrek dakarren gizarte-bidegabereria zuzentzen eta desagerrarazten saiatu beharrea, **gero eta zerga-iruzur gehiago baimentzeko joera** hautematen da.

## **2. Zerga ikuskapenen ondoriozko bilketa**

2001ean, EAEn, **119,3 milioi euro bildu ziren egindako zerga-ikuskapenen ondorioz**. Datu horren arabera, 2001ean hautemandako iruzurrak **%14,49ko igoera** izan zuen **aurreko urtealdikoaren aldean**. Kopuru horren esanahia ulertzeko, gogora dezagun, adibidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak urtealdi horretarako izan zuen aurrekontu-zuzkidura 61,6 milioi eurokoa izan zela (hots, hauteman ziren zerga-iruzurren ondorioz berreskuratutakoa baino bi bider txikiagoa). Itxura guztien arabera, zerga-ikuskaritzarako erabiltzen diren baliabideak ugarituko balira, aurkituriko iruzurren ondoriozko zerga-bilketa nabarmenki handituko litzateke.

EAEn, 2001ean **aurkitutako zorra zein zerga motatan jazo zen** aztertzean ikus daitekeenez, **%61 (72,9 milioi euro)** zuzeneko zergei

zegokien, %32,3 (38,6 milioi euro) zeharkako zergei eta %6,6 (7,9 milioi euro) tasei eta bestelako zergei.

**Lurralde lurralde** begiratuta, zorraren %40,2 (47,9 milioi euro) Gipuzkoan antzeman zen; datu hori harrigarria da, Bizkaiak Gipuzkoarekin alderatuta zerga-bilketan duen pisu handiagoa aintzat hartzen badugu. Bizkaian, EAEko iruzurraren %35,5 (42,4 milioi euro) hauteman zen, eta iruzur txikiena Araban aurkitu zen: zor osoaren %24,3 (29 milioi euro).


**Zerga zorrari buruzko akta likidoen xehetasuna**  
(milioi eurotan). EAE, 1995, 2001

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		CAPV	
	2001	1995	2001	1995	2001	1995	2001	1995
Zuzeneko zergak	10,6	13,0	28,4	13,8	33,9	44,5	72,9	71,3
Zeharkako zergak	18,4	3,0	14,0	6,8	6,2	4,8	38,6	14,5
Tasak eta beste				2,0	7,8		7,9	2,1
<b>Guztia</b>	<b>29,0</b>	<b>16,0</b>	<b>42,4</b>	<b>22,6</b>	<b>47,9</b>	<b>49,3</b>	<b>119,3</b>	<b>87,9</b>

*Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa*

Ondoko grafikoan, hautemandako zerga-zorrek EAEn **1995-2001** aldian izan duen **bilakaera** azter dezakegu, bai osokoari, bai zuzeneko eta zeharkako zergei, bai tasei eta bestelako diru-sarrereri dagokienez. Bertan, aurkitutako iruzur osoaren joera aldakorra ikus daiteke, oro har, zuzeneko zergetan hautemandako iruzurrak markatua, horien pisua handiagoa dela eta. Salbuespena 1999ko urtealdian sumatzen da, izan ere, urte horretan, zeharkako zergetan aurkitutako iruzurra asko handitu zenez, iruzur osoa ere nabarmenki areagotu baitzen. Aldakuntza horiek aintzat hartuta, hautemandako iruzur osoa 87,9 milioi eurotik 199,3 milioi eurora igaro zen 1995etik 2001era, hau da, %35,7ko igoera izan zuen.

Zerga zorrari buruzko akten bilakaera (milioi eurotan).  
EAE, 1995-2001



*Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa*



